

VITORIA-GASTEIZ PARKE ETA LORATEGIAK MODU ADIMENTSUAGOAN UREZTATZEKO PROIEKTU BATEAN ARI DA PARTE HARTZEN

IRRIGESTLIFE Europar proiektuaren xedea Vitoria-Gasteizko berdeguneetarako ureztatze sistema adimentsua sortzea da. Beharrezkoa denean soilik ureztatzea da asmoa, eta horrela egungo ur kontsumoaren % 30 aurreztu nahi da.

Nola?

Parke eta lorategietan aldagai klimatikoak (tenperatura, euria, zoruaren hezetasuna eta haizearen abiadura) neurtzen dituzten eta ur premiak aztertzen dituzten sentsoare eta kontrolagailuak instalatzen ari gara. Bildutako informazioa GIS (Geografia Informazioko Sistema) bati bidaltzen zaio, hark modu adimentsuan erabakiak har ditzan, udal teknikariek denbora errealean, elektro-balbuletako irekitze eta itxiera bitartez, ureztatzea kudea dezaten eta aberiak edo hausturak bezalako gertaerak antzeman ditzaten.

Proiektuaren aurrekontu osoa 2.817.737 €-koa da. Europa Batasunaren LIFE programak % 47 finantzatzen du (1.184.213 €) eta gainerakoa bazkideen jartzen dute: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Vitoria-Gazteiz Udala, Viveros Perica, Estudios GIS eta Prysm. Ad Hoc Desarrollo Sosteniblek kanpo-laguntza bezala parte hartzen du.

Proiektua 2013eko irailean hasi zen eta 2015eko irailean bukatuko da.

Zenbat ur erabiltzen da udalerriko berdeguneen ureztapenean?

Gure hiriaren kasuan, udako ureztapen sasoa 90-100 egun ingurukoa izaten da, eta kontsumo eraginkorra bi ehuneko hauen artean kokatuko litzateke: 200 l/m², uda heze eta freskoetan, eta 300 l/m², uda oso lehor datorrenean. Azken urteotan, ureztapenean kontsumitutako uraren bolumena 850.000 m³ ingurukoa izan da (gutxi gorabehera, 315 l/m²), nahiz eta, 2013ko udan izan zen eguraldi berezia tarteko, kontsumoa askoz txikiagoa izan zen, 213 l/m²-koa batez beste.



Proiektuaren zenbaki eta datu batzuk

- Gaur egun, Vitoria-Gasteizko 230 hektarea (ha) berdegune ureztatzen da 359 programatzaila eta 3.998 ureztatze elektrobalbula bidez. IRRIGESTLIFE proiektuaren sistema berria 116 hektareatan ari da aplikatzen (ureztatutako berdegune guztien % 50), hiriko 5 gunean handitan banatuta. Guztira 115 programatzaila eta 1.677 elektrobalbula egongo dira sistemak kontrolatuta.
- Ureztatzerako 4 prototipo ari gara instalatzen, bat autonomoa eta hiru sareari konektatutakoak.
- Proiektuan aurreikusitako 116 hektareatik, 55 ha prestatu dira dagoeneko. Horietatik 6 parketan informazio panelak instalatu dira (Prado parkea, Buradon Gatzagaren parkea, Ekialdeko parkea, Katedral Berriaren parkea, Hegoaldeko parkea eta Gamarrako parkea).
- 2014ko ekainean proben faseari ekin zaio, ureztatze sistemaren datuak ordenagailuetara eta udal GISera nola transmititzen diren eta sistema osoak nola funtzionatzen duen egiaztatzeko.

Buruzko informazio gehiago:
<http://www.irrigestlife.eu>



BATU URDINEZ sentiberatze-kanpaina berria

Futura Planak sentiberatze-kanpaina berri bat abiarazi du, udalaren instalazioetan uraren erabilera egokia sustatzeko asmoz. Horretarako, 800 kartel jarriko dira komun eta aldageletan, Batu urdinez mezuarekin, kolore horren bidez uraren erabilera eraginkorraren aldeko jarrerak edo ohiturak islatuko baitira hainbat iruditan. Hasiera batean, kartelak Mendizorrotza eta Gamarrako kirol-esparruetan, Mendizorrotzako kiroldegian eta Beti-Jai pilotalekuan ezarri dira, eta udal futbol-zelaietako eta zentro soziokulturaletako arduradunei ere eman zaizkie. Irailean, gainerako gizarte-etxeetan eta kiroldegietan ere jarriko dira, ikasturte berriaren hasierarekin batera.

Izan ere, ikastetxeak izango dira kanpaina honen beste jomuga garrantzitsu bat, eta 1.200 kartel banatuko dira berrietan, gure ekimen honekin bat egin dezaten udako oporraldien ondoren.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org